

ORDIZIA ▶ EUSKARA

# Euskara Plana herriko enpresa denetara zabaldu nahi dute

'Ordiziako enpresak euskalduntzen' egitasmoa aurkeztu zuten, atzo, Euskara Biziberritzeko Planaren barruan



Goierri Aukera eta Izar enpresetako ordezkariek, atzo, Iturrioz, Labaka, Agirre eta Calvilloekin. MIKEL ALBISU

JOSE RAMON MURUA ▶ IZAR ERAIKUNTZA METALIKOAK

## «Erdaraz egiten genuen batik bat, eta hori aldatu beharra zegoen»

Izar enpresako arduraduna da Jose Ramon Murua. Enpresa horretan iaz jarri zuten martxan Euskara Plana, aurretik inkesta bat pasa zitzaizen langileei, eta egoeraren diagnostikoa egin zuten, helburuak zehaztuz. Urtebeteren ondoren balorazio positiboa egin du Muruak.

### Zergatik jarri zenuen martxan Euskara Plana?

Ikusten genuen erdaraz egiten genuela batik bat, eta hori aldatu beharra zegoela. Bezeroekin ere erdaraz egiten genuen. Asmoa bagenuen egoera aldatzeko, baina bultzada bat falta

zitzaigun. Lanean ez genuen denbora askorik libre, eta plan batekin eta Elhuyarrekoren laguntzarekin errazagoa izan da dena. Urtebeteren ondoren gustura gaudela esan dezakegu, eta ondo doala.

### Zein ondorio izan ditu Planak zuen enpresan?

Alde batetik, euskararen inguruko kontzientziazioa orain handiagoa da. Eta horrekin batera konpromisoak hartu ditugu euskara bultzatzeko, eta praktikan jartzen ari gara orain.

### Zein motako konpromisoak dira?



GOIERRITARRA

Laneko orriak, albaranak, euskaldundu ditugu. Horrekin batera autoko errotulazioak orain euskaraz jarriko ditugu.

### Langileek nola hartu dute Plana?

Ondo. Gustura daude, ados Plana garatzearekin. ◀

MAIDER DEL OLMO

Ordiziako enpresak euskalduntzen Euskara Planaren aurkezpena egin zuten, atzo, Goiekik Ordizian duen egoitzan. Bertan jakinarazi zuten zuten herriko beste enpresa batzuk sartuko dira Planean, Udaleko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) barruan. Atzoko jendaurrekoan Euskara Plana martxan duten hamar enpresetatik bik parte hartu zuten: Izar eraikuntza metalikoak eta Goierri Aukera. Haiekin batera izan ziren Ana Labaka Elhuyar Aholkularitzako teknikaria, Julen Agirre eta Aitor Calvillo Euskararen Aholku Batzordeko ordezkariek eta Alejandra Iturrioz alkatea.

Euskara Planaren helburua udalerriko enpresetan progresiboki eragitea da. 2007. urterako enpresa denek Euskara Plana izatea nahi dute.

### Planaren garapena

Enpresa bakoitzak bere egoerari egokitutako helburuak zehazten ditu Euskara Planean, eta hainbat konpromiso hartzen ditu. Elhuyarrek enpresei jarraipena egiten die, eta aholkularitza eskaintzen die egitasmoa garatzeko: aurrekontuak egiten, euskarazko itzulpenak egiten... Jarraipena etengabekoa da, telefonoz eta e-mailez. Koordinazio gune bat ere badago, eta bertan biltzen dira gaur egun Euskara Plana duten hamar enpresak. Atzo jakinarazi zuten jarraipena egiten segiko zaie enpresei aurten ere, eta berdin egingo dute aurrerantzean Planean murgilduko direnekin ere.

Alejandra Iturrioz Ordiziako alkateak azaldu zuen Planak hiru urteko iraupena du: «Diru inbertsio handia egin da Planeanekin, eta aurrerapausoa izan daiteke lan mundua euskalduntzeko. Lan mundua estrategikoa da», esan zuen.

Julen Agirre Euskararen Aholku Batzordeko kideak ere lan mundua euskalduntzea estrategikoa dela azpimarratu zuen: «Irakaslea naizen aldetik nire esperientziatik esan dezaket lan mundua euskalduntzea lortuko dela euskararen normalizazioa, lehen hezkuntza arloaren euskalduntzearekin esaten zen arren». Agirreraren arabera euskara «balio erantsia» da enpresentzat.

Iaz 10 enpresari egin zitzaion Plan horretan parte hartzeko gonbidapena, eta Elhuyar Aholkularitzako teknikari bidez enpresa horien diagnostikoak eta diseinuak egin zituzten. Atzo egitasmoan sartzeko gonbidapena herriko enpresa guztiei luzatu zitzaion.

ORDIZIA ▶

## Oianguri buruzko erreportajea emango du ETBK

Gaur arratsaldean ETBko Bektzu haur programan Oianguri egitasmoari buruzko erreportaje bat emitituko dute. Ordiziako haur batek programa horretara eskutitz bat idatzi zuen Oianguri golf zelai bat egingo dutela eta kexak. Hori dela eta, programakoek lehengo asteko ostiral arratsaldean Ordizian kalean zebilen jendeari galdera batzuk egin zitzioten. Gaur, 19:00-19:15 eta 19:45-20:00 bitartean botako dute.

ORDIZIA ▶

## Bereziartuk kirolari onenaren saria jaso du

Josune Bereziartu eskalazale goierritarrek Euskadi Irratiak ematen duen Euskal Kirolari Onenaren Saria jaso zuen, atzo. Berrogei kirolari inguru aritu dira epaile bezala, eta entzuleek eurek ere bozkatzeko aukera izan dute. Aginte makila eta bere pisua ardotan, horixe saria.

ORDIZIA ▶

## Ormaiztegiara joango dira mendizaleak

Ordiziako Mendizaleak elkarteak irteera antolatu du iganderako. Honako ibilbidea egingo dute: Ordizia-Larrazkanda-Etxebarrieta-Mandubia-Kizkitza-Ormaiztegi.

Mendizaleak elkartearen egoitza paretik aterako dira, goizko 08:00etan. Irteeran parte hartzeko beharrezkoa da arrez izena ematea.

LAZKAO ▶

## Jubilatuek gaur urteko batzarra egingo dute

Jubilatuen elkarteak jakinarazi duenez gaur urteko batzarra egingo dute arratsaldean. Orobioneko egoitzan izango da batzarra, arratsaldeko 16:30etik aurrera. Gai ordena honako hau izango da: aurreko aktaren onarpena, 2005. urteko balantzea, aktibitateak, kuotak eta galderak eta erantzunak. Joateko deia egin diete herritarrei.